

Konpost bikaina!

LEHIAKETA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Garaipen Iraultzaileko Departamentua
Departamento de Desarrollo Sostenible



Konpost
Hondakin

LEHIAKETAREN OINARRIAK

Lehiaketa hau 2014-2015 urteetan garatuko den konpostaje kanpainako ekintza osagarria da. Lehiaketaren helburua, herritarren parte hartzea bultzatzea, konpostatzen duten familien sarea sendotzea eta konposta egiten duten erabiltzaileak saritzea hondakinen prebentzioan egiten ari diren lanetatik.

PARTE HARTZEA

Lehiaketan Urola Kostako Udal Elkarte osatzen duten Udalerrietan etxean edo baratzean konposta egiten duen edozeinek eman dezake izena.

IZEN EMATEAK ETA BALDINTZAK

Lehiaketan parte hartu ahal izateko, Urola Kostako Udal Elkartearen web gunean edo hau osatzen duten Udalerri ezberdinetako web guneetan aurkituko den galdetegia bete beharko da. Galdetegia betetzen denean honako helbide elektronikora bidali beharko da: konposta@urolakosta.org. Udaletxe bakoiztean paperean betetzeko aukera ere egongo da, bertan entregatuko da.

- Izen emateen epea 2015eko maiatzaren 31an bukatuko da.
- Izen ematea onartua izateko, kontakturako beharrezko datuak osatuak egon beharko dira: izen abizenak, helbidea eta telefonoa.
- Erabiltzaile bakoitzeko izen emate bat bakarrik onartuko da.

Jasotako izen emate guztiak errebisatuko dira baldintzak betetzen dituzten egiaztatzeko.

Ondoren galdetegi guztiak aztertuko dira eta erabiltzaile bakoitzari 0tik 50 puntu bitarteko puntuazioa emango zaio galdetegiaren erantzundakoaren arabera. Puntuazio altuena lortzen duten 5 erabiltzaileei bisita pertsonalizatua egingo zaie, bertan hainbat adierazle aztertuko direlarik. Gainera, konpost helduaren lagina hartuko zaie analisiak egin ahal izateko. Bisitan jasotako puntuazioari, analisisen emaitzenak gehituko zaizkie, horrela 3 erabiltzaile saridunak aukeratzeko dira.

PARTE HARTZAILEEN KONPROMISOA

- Galdetegia egiazkotasunaz betetzea. Errealitatearekin ezberdintasun handiak detektatzen badira, deskalifikatua izan daiteke.
- Bisitan eskatuko diren datuak ematea, batez ere hondakinen kudeaketari dagokionak.
- Konpostaje prozesuko zati guztien gainbegiraketa onartzea: materia organikoaren banaketa, egituratzailea lortzea, konpostaren erabilpena, ebaluaketa ahalik eta egokien egin ahal izateko erraztasunak emanez.
- Konpost helduaren lagina hartzen uztea eta argazkiak atera ahal izatea eta hauen difusioa onartzea, konpostajea sustatzeko erabili ahal izateko.
- Sarien banaketa egunean joatea edo ordezkari bat bidaltzea saria jasotzea, horretarako adierazitako data, orduetegi eta tokian.

Hauetako baldintzaren bat betetzen ez bada, lehiakidea deskalifikatua izango da.



LEHIAKETAREN MEKANIKA ETA FASEAK

Lehiaketak, konpostaren kalitatea neurtzeaz gain beste helburu batzuk ditu ere, besteen artean hondakinen organikoak hobekien kudeatzen dituzten familiak saritzea. Lehiaketa ondorengo 4 faseetan banatzen da:

- **FAMILIEN HAUTAKETA**

Zuzen bidalitako eskaera guztiak konpostajean espezializatutako teknikari batek ebaluatuko ditu 0tik 50 puntura.

Puntuaketa altuena lortzen duten 5 erabiltzaileak semifinaletara pasako dira eta teknikari baten bisita jasoko dute. Erabiltzaile hauei abisua pasako zaie eta hitzordua finkatuko da.

Ezin bada hauekin kontaktatu edo bisitaren hitzordua ezin bada finkatu lehiaketatik kanpo geratuko dira.

- **HAUTATUTAKO FAMILIEI BISITA**

Semifinalistek teknikari baten bisita jasoko dute, konpost helduaren lagina hartuko zaie eta prozesuaren funtzionamenduaren argazkiak aterako zaizkie.

Bisitan zehar txosten bat egingo zaie, konpostaje prozesuaren adierazle nagusien emaitzak eta etxean materia organikoaren kudeaketaren inguruko datuak bilduko dira. Txostena gehienez 50 punturekin baloratuko da.

- **LAGINEN ANALISIAK**

Jasotako 5 semifinalisten laginak analizatzera bidaliko dira eta emaitzak ere gehienez 50 punturekin baloratuko dira.

- **SARIEN BANAKETA**

3 faseetako puntuaketaren gehiketa egingo da 3 sarituak hautatzeko. Jarraian sariak zeintzuk diren azaltzen da:

1go saria: diploma, begetariano edo antzeko jatetxe batean 2 pertsonentzako afaria, konpostarentzako termometroa eta birziklatzeko kita (hondakinak ondo bereizteko koloretako ontziak)

2.saria: diploma, produktu ekologikoen saskia, konpostarentzako termometroa eta birziklatzeko kita (hondakinak ondo bereizteko koloretako ontziak)

3.saria: diploma, konpostarentzako termometroa eta birziklatzeko kita (hondakinak ondo bereizteko koloretako ontziak)